

# Euskaldunon elkarlana posible ote?

Arantzazu Loidi

**1**990eko Apirilaren 26an Arrasateko Monterroi Kultur-Etxean AEDren Kultur-Iharduerak azpitaldeak “Euskaldunon elkarlana posible ote?” izenburupean mahai-inguru bat antolatu zuen.

Hona hemen orduan partu hartu zuten bi hizlariak eta gaiaz esan zituztenak:

**Partaideak:** Paulo Agirrebaltzategi, EKBko Lehendakaria

Mikel Ugalde, H.P.I.N.ko Euskara Aholku Batzordeko koordinatzailea.

**Moderatzailea:** Lehenik, egindako lanaren balorazio kritikoa egitea, nondik nora ibili diren, ze lorpen egin dituzten eta zein zailtasunekin topo egin duten azaltzea. Erakunde biok azken urteotan elkarrekin egindako lana eta izandako harremanen balorazioa egin ezazue.

**Paulo Agirrebaltzategi:** EKB orain zazpi urte sortu zenetik, euskal kultur gintzan ari diren talde eta erakunde herritarren koordinazioan ari da. Koordinazioa zen helburu, euskararen berreskurapena arazo globaltzat ikusten dugulako. Globaltasun sektorialean oinarri-

tuz, eta herri mailakoan oinarrituz, koordinazio plataforma nazionala sortu zen, herriaren dinamika funtsezko ikusten dugulako.

Balorazioa eginez, Txepetxen liburuari buruz “Un futuro para nuestro pasado” Jakinen atera zen 42-43 alean aipatzen nuen autokritika bat behar zela erakunde publikoen eta herritarren arteko harremanak eta elkarlana nola joan diren ikusteko. Bestetik, koordinazioa behar adina zergatik ez den lortu eta ze hutsune izan diren kritikatu beharra dagoela. Nik uste, koordinazioa, EKB-n hasieratik helburutzat jo izan duguna, erdipurdika lortu dela, arrazoi diferenteengatik: EKB erakunde herritarrak tradizio handia izan du, eta instituzio publikoak sortzean, batzuk instituzioekin lotutua inplikatzeko dira, beste batzuk ez dituzte instituzioak onartzen. Hor haustura bat bizi izan da politika mailan, eta eragin handia izan du euskararen mailan ere.

Bestalde, EKB-ren estrukturalazioan zergatik ez da lortu behar adinako plataforma euskararen berreskurapenerako bide honetan? Nik uste instituzioen aldetik laguntzarik eza egon dela -maila guztietako instituzioak aipatu be-

har hemen-, eta baita sektore batzuegandik erasoak ere, beraz, eragozpenak bi aldeetatik etorri izan dira.

EKB plataforma gisa sortu zen, eta ez salatu izan zaion bezala, "ministerio paralelo" gisa, eta beraz, badago lankidetzeta edo harreman bertikal bat planteatu beharra, ez bakarrik elkarleen arteko horizontala, instituzioekikoa, bertikala ere behar da.

---

## *Gauza bat argi dago: edo elkarlanerako bidea egiten dugu, edo bestela euskarak ez du etorkizunik, nik behintzat hain latz ikusten dut.*

### **Mikel Ugalde**

EKBren aldetik, lorpen batzuk izan dira, herrietako EKB-ak edo beste izen batzue-takoekin egindako koordinazioa positiboa izan da. Kanpaina nazionaletan ere, "Bateginik" eta bertan sortu ziren kontraesanak gogoratu, erakunde herritar eta instituzioen arteko artikulazio mailan, frakasoak izan zen, maila horretan bakarrik.

HPINrekin, Kongresu baten antolaketan parte hartu zen eta nahiko ongi atera zen, eta Udal elebazarren mugimendu horretan EKB inplikatu egin da eta bidea urratzen ari gara. Hala ere esan beharra dago lankidetzarako zailtasunak izan direla eta sarritan nagusitu egin direla. Alde horretatik, autokritikara joaz, esango nuke egon direla zenbait gai, sei puntutan laburbil daitezkeenak, kritikoki sakondu beharrekoak:

1.- Lilura edo amets handiegiz ikusi izana euskararen berreskurapenaren prozesua, herri mugimendurekiko lilura handiegia, hain zuzen ere.

2.- Lehendik erakunde ofizialei buruz zegoen tirabirazko edo etenezko jarrera, inertziak erakunde berriei buruz ere luzatu izana.

3.- Euskal Herriko erakunde estatalen euskararekiko erantzukizuna ahazturik, edo

beste hurbilago erakunde ofizialen aurrean soilik euskararekiko eskubideak ipini izana, eta ez estataleki buruz.

4.- Euskal Herriaren berreraikuntzarako prozesuan politikaren alorrari erabateko nagusitasuna hartzen utzi eta kulturazko hizkuntzazkoaren autonomia nahikoa zaindu ez izana.

5.- Euskara guztiona eta guztiontzat dela, eta ez abertzaleentzat bakarrik, sarritan argi eduki ez izana.

6.- Euskal kulturako sail guztietako talde eta elkarte herritar guztien koordinaziorik eza.

*Mikel Ugalde:* Idazkaritzan oso jende gutxi ari gara lanean, eta gainera ez dago kultura Sailarekin lotua, zuzenean Lehendakariarekin baizik, eta idazkaritza bat baino ez da. Gure filosofia hau da: tokian-tokian, eta arduradun bakoitzak bere eremuan euskararen ardura hartu behar du, euskararen arazoa komisio edo arlo bakoitzean aztertu behar da.

Orokorki, hiru etapa bereiziko nituzke:

a) Autonomia Estatuaren ondoren pauso bat eman zen, ikastolen mugimendu guztia bereganatuz, eta eskolaren baitan sekulako itxaropenak genituen, baina horrekin bakarrik ere ez goaz inora.

b) Beste pauso bat denbora librearen inguruan eman zen, komunikabideen munduan eta ETBk euki zezakeen eragina kontutan hartuz.

c) Une hauetan, berriz, beste erabaki nagusi baten aurrean gaude, hain zuzen ere Funtzio Publikoaren Legea onartu eta gero, administrazioa euskalduntzeko, lana euskaraz egiteko eman nahi diren pausoak, hortxe dago desafio nagusia.

### **Moderatzailea: Praktikan, zer gertatzen zaigu?**

Eusko Jaurlaritza gizartean gertatzen denaren ispilu da, hau da, alderdi politiko eta sindikatuak ere erderaz funtzionatzen dute, eta ahulezia hori ageri da Eusko Jaurlaritzan. Gure apostua sail bakoitzean euskararen planteamentua egitea da.

Bestalde, Ibon Sarasolak azken Euskara aldizkarian dioena jasoko nuke: Alde batetik kontzientzia abertzalea edo kontzientzia nazionala hor dago, horrek ez du beti euskararen alderdia behar bezala aintzakotzat hartu, eta

hizkuntz kontzientzia ez da behar bezala landu. Gainera, euskaraz dakigunotatik erabiltzen dugunotara asko gutxitzen da eta erabileraren funtzioak oraindik ere are mugatuagoak dira, gure planteamendua ez da daukagunari eustea bakarrik, baita beste eremu horietara nola iritsi ere. Alde batzuetan gaitasunaren aldetik.

**dean biltzen ari dena norabide beretsuan abiatzerik ba ote dago?**

**Mikel Ugalde:** Benetako arazoa komunikazioaren eginkizun horretan dago, eta oso nabaria da ematen den inkominikazioa. Adibidez, kooperatibismoak sortu zuen ideia zertan geratu da? Zenbaterainokoa da elkar-



*Mahai-inguruetatik hasita, mahai baten inguruan jartzera iritsi behar*

Hezkuntza, komunikabide eta horrelako arloetan zerbait egiten ari garen bezala, beste arlo inportante bat lan munduarena da, lan hizkuntza euskara izatea.

**Moderatzailea:** elkarlanari, konpaktazioa helduz, konpaktazioaren behar hori ikusten da? euskaraz dakigunotatik, zenbatek daukagu ekintzara pasatu behararen kontzientzia, euskaldun izan nahi dugunon konpaktazioa beharrezko ikusten duzue? zeintzuk dira horretarako eragozpenak? Eta euskal mundua desegitaratuta dagoela ikusirik, eta EKB-k edo HPIN-k eragin handirik ez dutela ikusirik, zein mailatan ikusten duzue elkarlan hori? EKBn biltzen ari dena eta Aholku Batzor-

lanerako jarrera eta joera? Alde horretatik oso kezkatuta gaude, ze irakaskuntza desastrea da kontu horretan, bakoitzak bere gaia hartu eta hizkuntzarekin zerikusirik ez balu bezala ematen du, eta irakasle bakoitza bere aldetik doa. Gainera, irakaskuntza mailan ez da asmatu euskalkiekin, eta ahozkoan behintzat nork bereari eutsi beharko lioke.

Idazkaritzan gaur egun dugun arazorik larriena hauxe da, nola elkar komunikatu, eta nola hartu bakoitzak bere gain euskararen ardura. Eusko Jaurlaritza eta herri erakundeen elkarlana bideratzea posible ote da? Gauza bat argi dago: edo elkarlanerako bidea egiten dugu, edo bestela euskarak ez du etorkizunik, nik behintzat hain latz ikusten dut, eta gainera euskara ez du Eusko Jaurlaritzak salbatuko,

hiztuneria guztiak baizik.

Zein da bidea? Nik badut esperientzia gozo bat, ikastolena, ikastolen inguruan zenbait postura alboratu eta proiektu bati aurrera

eremua, eta konpaktazioa zirkulu edo zentru horretan dago, euskararen berreskurapena helburu jarriaz, baina euskara arazo politiko izanik ere, politikarien arazo hutsa izatera ez



*Kanta gogora ekarriz: zenbat gara? Zer egiten dugu?...*

eragiteko gai izan gara eta. Estrategia mailan diskuti dezakegu, eta Arrasateko hitzarmenean eta beste zenbaitetan ere baditugu adibideak zenbait pausu ematen hasteko.

**Paulo Agirrebaltzategi:** Inkomunikazio soziala eta erakunde publiko eta erakunde herritarren artekoa serioa da, eta oraindik serioagoa dela esango nuke euskararen arazoan. Konpaktazioa hitza Txepetxengandik datorriku eta Txepetxek bere liburuan euskararekiko bost artxipito edo eredu aipatzen ditu: erdel-duna, atzerritarra edo edozein motatako euskalduna; euskaldunberri jatorrizkotugabea, hau da, erabat euskara bere bizitzako hizkuntza bihurtu ez duena; “euskaldunzahar eskolatu gabea”, euskara landu ez duena; “euskaldunberri jatorrizkotua”, euskara bere bizitzako hizkuntza bihurtu duena; eta azkenik, “euskaldun eskolatu”. Azken bi horiek egin beharko dute eremu sinbolikoa, euskaldun osoen

bihurtuz. Orduan, konpaktazioa behar-beharrezkoa da, euskara helburu jartzen duelako, eta bestelako arazo politikoetatik euskararen autonomia behar duelako.

Kompaktazioa, hala ere, hitz ideala izan daiteke, baina berez ez du ezer esan nahi, euskararen nagusitasunaz aparte, hori gizartearen artikulazio edo estrukturazio bihurtzen ez bada, eta hori bi erataratu egin behar da: hain, zuzen, erakunde herritarren konpaktazioa edo artikulazioa eta erakunde publikoaren inguruko artikulazioa, beraz, gizartearen konpaktazioa egin behar da bere oinarrian, eta baita euskararekiko instituzio publikoak oso inportanteak ditugulako.

Hau honela, bi erataratu planteatu behar da konpaktazio hori: lehen aipatu dut horizontala eta bertikala; horizontalean, nolabait deitu behar eta nik “dialogistikoa” deitzen diot, elkarrizketan oinarritu eta zabal eta irekia izan behar du. Koordinazioak hiru eratakoa izan

behar duela aipatu dut lehen, baina hemen batez ere interesatzen zaidana “artikulazio dialektikoa” da, bertikala, alegia: erakunde herritarren eta erakunde publikoen artekoa.

Berriz ere horri heldu beharra dago, eta aurrerantzean problema nagusietako bat bezala ikusi behar dugu. Honetarako baldintza berezi batzu behar dira, eta baztertu beharreko tentazio batzu ere aipatu behar dira, baldintza funts-funtsean elkar onartzea izango baita. Oso puntu garrantzizkoa da gaurko gizarte osoari begira, eta batez ere euskararen arazoaren aurrean benetan da larria, demokrazia berri bat asmatu beharra. Eta demokrazia berri horrek behar du planteatu sakon-sakonetik nola artikulatu hauteskunde bidez aukeraturako ordezkarien funtzioaren eta sistema horretan sartu gabe gizartean eratuta dauden taldeak nola artikulatu. Herri txiki bat gara, eta hor funtsezko arazo bat daukagu.

**Moderatzailea:** AEDri buruz zer eritzi daukazu?

**Mikel Ugalde:** Kanpotik hemengo hitzarmena ikusi, eta oso pauso handizat baloratzen dut, baina besta pauso asko eman behar dira serio. Irakasle batek esaten zigun “denbora gehiago pasatzen dugula oilaskoa neurtzen eta pisatzen gizentzen baino” ekintzetara ere pasa egin behar da, beraz. Arrasatek benetako baldintzak ditu berreuskalduntze plan sakon, serio eta zabal bat aurrera eramateko. Pentsamolde ezberdinekoen artean batasun batetara iristeko gai zaretela erakutsi duzue, badago euskaltzaletasun bat, Arrasate Press eta Telebista bat, lankidetzarako esperientzia eta joera. Eta gainera, euskararen etorkizuna ez da baseritik etorriko, herri industrialduen apostua jokatu nahi duten guneetatik baizik; bilera hau ez da azkena izango, orainarteko pausoak gerokoaren abiapuntu baino ez lukete izan behar.

**Paulo Agirrebaltzategi:** Orain bost urte argitaratu genuen “Euskara Plangintzarako Oinarriak” aldizkarian honako hau idatzi nuen: “azken aldian berriz, herri dinamikaren fase berri baten aurrean aurkitzen gara (...) horrela, herritarren sektore euskaltzaleak biltzen dituzten erakundeak sortu eta eratu dira, sektore zabalak, partehartzaileen leku sozialari nahiz ideologiari begiraturaz; filosofia eta jokabide

horien adierazgarri da AED”.

Hasieratik baloratu izan da, orduan EKBren barruan ez zegoen oraindik baina. Herri mailako konpaktazioa, hau da, euskaldun osoen eta horien inguruan kokatzen diren ez-euskal-

## *Orduan, konpaktazioa behar-beharrezkoa da, euskara helburu jartzen duelako, eta bestelako arazo politikoetatik euskarak autonomia behar duelako.*

**Paulo Agirrebaltzategi**

dun osoen tarteko konpaktazioa badela eta alde horretatik oso eredu interesgarria eta baliagarria, eta bere lorpenak ere denok eza gutzen ditugu. Nik ikusten dudanez, eta eza gutzen dudanaren arabera, eredu hori euskaldunak euskaraz bizitzeko eremuak lortzean oinarritzen da. Kontrapuntu bat jarriko dut: Konpaktazioan ere eredu den bezala, beste bat da planifikazioaren eredu nagusiarekin oinarritua eta eredu horri beste slogan bat ere jarri ahal izango genioke: “Euskal Herrian euskaraz” esango genuke (ez naiz erakundeaz ari). Orduan konpaktazioak beste ikuspegi bat dauka: inpaktazioaren eredu edo arazoa. Ez nago seguru oraindik AEDren ereduak inpaktazioaren arazoa afrontatu duen, hau da, eragin soziala, ez eremu sinbolikoarena, baizik Arrasatekoa, erdiak erdaldun diren herri batetakoak. Beraz, Arrasatek beste slogan bat hartu behar duela uste dut, “euskara guztiona eta guztiontzat”, alegia.

**Galderak:**

**Beraz, elkarlana posible ote?**

**Mikel Ugalde:** Ez dago beste biderik, eta posible den ala ez den? Bai, posible da eta egin egin behar da, eta orain arteko hutsegiteak berriz gerta ez daitezen ahalegin serio batzu eginez, ez dut aparteko zailtasunik ikusten. Nola egin elkarlana? Alde batetik, eginkizun

serio bat badaukagu herri mailako elkarteen koordinazioan, eta beste eginkizun bat instituzioetan burutu beharrekoa izango da: hezkuntza, osasun saila, Udala, Diputazioa... instituzioen arteko elkarlana ere egin egin behar da, aldiberean herri mailako indarrei protagonismoa aitortuz topaguneak bilatu. Hor daukagu, besteak beste, ikastolen eredu eta esperientzia ere.

## *Elkarlana posible da eta egin egin behar da, orain arteko hutsegiteak berriz gerta ez daitezen ahalegin serio batzuk eginez.*

**Mikel Ugalde**

*Paulo Agirrebaltzategi:* Aipatu ditudan elkarlanaren dimentsio bien artean, horizontalean nik uste posible dela, EKB bera ere bada, eta baita AED ere. Bertikala ere posible da, eta Arrasaten bertan ere gertazen ari da, eta erakunde pribatuak ere sartu dira gainera. Ikastolena beste gutzirako eredu ote den, nik badut neure duda; fenomeno bat da, baina denok dakigu 30 urte dituela esperientzia horrek eta egoera politiko erabat ezberdinean sortu zen, beraz, piska bat erlatibizatu egingo nuke eredu izate hori.

Posible dela uste dut, bai; hemen elkarlana esatean, batez ere mintzen gaituena erakunde publiko eta erakunde herritarren artekoa da. Konkretean, EKB-k Idazkaritzarekin batera antolaturiko Kongresu batetako txosten batean, zenbait puntu aipatzen ziren, artikulazio dialektiko horretan aurrera jotzeko:

- Erakunde herritarrek ordezkariak eduki beharko lukete erakunde publikoen plangintzarako organo kontseilarietan plana egiteko, bideratzeko eta burutzeko prozesuan.

- Herri erakundeek euren programa eta proiektuen berri bidali behar lukete erakunde publikoetara, komunikazioarena oso inportantea delako.

- Erakunde publikoek erakunde herritarrei

azpiegutarako laguntzak eman, funtzio bat asumitzen bada, hori egin behar litzateke, indartzeko.

- Herri erakundeen sostengurako laguntza ekonomiko iraunkorrerako formak estudiatu behar lituzkete erakunde publikoek: hitzarmen iraunkorrak eta antzekoak.

- Plangintzaren barnean, proiektu konkretuetan lankidetzak konkretua bilatu bi aldetako erakundeen artean, "Bateginik" eta antzekoetan sortu izan diren kontraesanik gabe.

- Erakunde herritarrek antolaturiko ekin-tza konkretuetan finantzapenerako laguntza eman.

- Erakunde publikoek antolaturiko ekin-tzetan, erakunde herritarren inplikazio benetakoa gauzatzeko formulak bilatu, erakunde herritarren militantziaz ere baliatuz, eta hau oso inportantea da.

- Erakunde herritarren koordinakundearen ordezkarien eta erakunde publikoen arteko batzorde iraunkorra sortu, harremanak bideratu eta gatazkak konpontzeko, sugerentzia eta erreibindikazioak kanalizatzeko.

- Kanpaina espezifikoa egin herri erakundeek antolatuta, baterakoiak, erakunde publikoen euskarriaz eta onarpenaz.

- Nazioarteko harremanetarako bi aldean lankidetzak berezia antolatzeko moduak aurkitu behar ditugu.

- Plangintza diseinatzeko eta hori aurrera eramateko, erakunde herritarren partaidetza militantea espezifikatu.

Guzti honekin, nik uste posible dela.

### **Galdera:**

Nik uste, egiten dituzuen planteamendu guztietan urrats txiki bat eman beharra dagoela, ekintza aldetik gaur egun euskararen munduan lan egitean problemak non diren ikusiaz. Nolabait, gauza sinpleagoetaz hitze-gin daiteke gaur egun; Gu denok enpresa batekoak bagina, nola defendatuko genuke enpresa hori? denok hizkuntza berean hitze-gin beharko dugu, eta hau euskararen mundura eramanez, hobeto joango da.

Nik ez dut ikusten hainbestearainoko problema, jendea benetako militantziaz ikusten bait dut, eta bigarrenik, ikusten dudalako bada jendea euskara partidu politikoen gaitetik jarri nahi duena, eta hori benetako ahalegina da, egin behar dena.

Gonbaraketa edo simil bat jarriko nuke: Ni saltzaile bat banaiz, euskararen saltzailea, lehenengo egin beharko dudana, nire taldeko jendeari euskara saltzeko ilusioa ipintzea izango da, baina tranpa erakutsi behar zaie: euskara ezin da saldu “euskaraz egin egun

ko du, tranzendentziak utzita. Eta guzti hau eginda, oso gauza garrantzitsua lortuko dugu, euskararen inguruan egiten diren ekintza guztien sinergiak batzea, alegia, eta benetako anporrak gero adarretatik aplikazio konkretuak izango ditu anporra ondo finkaturik badago,



*Erruhiena Peñagarikano amandrearen ohean sartu barik Lazkao-Txikirenean sartu izan baliz!*

guztian” esanda. Euskara tresna bezala erabiltzen, gozaten piskana-piskana jendeari saldu behar zaio. Gaur egun produktu guztiak berdinak dira merkatuan eta norberarena goxotasunez, xarmaz saldu behar da, eta ilusioa gure saltzea indarrei izango da lehen urratsa.

Gero, gure enpresan denok ilusioz bagaude, lehenengo egin beharko duguna nortasun bat bilatzea izango da, eta hor izugarrizko arazoa dugu. Euskararen alde gabiltzan guztion nortasun publikoak berdina izan behar du euskararekiko, eta ekintza guztiek honelakoak izan beharko dute: positiboak; ez-atakanteak; (adibidez, “Euskaraz eta Kitto” astakeria bat da, gure etxerako balioko duena, baina kanpora joanda, jendea beldurtu egingo da. Hori euskaldunok geure esparruetan aplikatuko dugu. Hirugarren ezaugarria, mezu alaia izan behar-

egiten ditugun indar ezberdinak zuzenago joango dira.

**Paulo Agirrebaltzategi:** Gehienbat motibazioaren eta jarreraren munduan sartu da idea hori, jendearen erabilpen eta jarreraren, eta horiek positiboak eta positibatzaileak izan beharko dute. Orain ere erabiltzen dira “euskara, etorkizuneko hizkuntza” eta antzeko lemak. Hala ere, ni kezkatzen nauena beste hau da: guzti hori inportantea da, baina honetara motibazio gaiak nahikoa dira? Txepetxen liburuan beste gai bat ere aipatzen da, eta motibazio benetakoan sartu behar dugula uste dut, barne motibazioan, hau da, euskara izango da baliagarri izango denean, euskara ikasten ari denari gizarte euskaldun bat ematen zaionean, euskaraz bizi izateko mundu bat duenean.

Horixe da euskararentzat propagandarik onena, motibaziorik onena.

**Galdetzaile bera:**

Merkatutik hasi beharko dugu enpresa sortzen, lehenengo, produktuaren beharra sortu beharko dugu merkatuan, marketing teknikak

---

***Euskal Herriak lurralde liberatuak  
behar ditu, erabat euskaldun eta  
konpaktazioaren  
ispilu izango direnak.  
Paulo Agirrebaltzategi***

eraman behar ditugu diruz salerosten ez den produktu batetara. Gure enpresaren makinak ETB, Arrasate Press, ATB, ikastola, herri erakundeak etab. izango dira, eta horien produktua gero ilusioz saldu beharko da.

Adibidez, euskararen aldeko kanpaina baten kartel moderno eta bizi baten alboan Euskal Herriko mapa beltz bat jarri zuten beste kanpaina batetakoek, eta kontraesan hori negatiboa da euskararentzat, euskarak nortasun publiko eta estilo bat behar ditu.

**Mikel Ugalde:** Ados nago, eta hain zuzen ere une hauetan era honetako planteamenduak lantzeko asmotan gabilta Idazkaritzan ere. Batez ere marketing-aren errealitatetik gehiago jo behar genuke.

**Galdera:**

**Mikel Ugalderi:** Paulo Agirrebaltzategik eman dituen hamaika puntuok onartzen dituzu?, eta praktikan jarteko ze posibilitate ikusten duzu?

**Mikel Ugalde:** Ordezkaritzarena, adibidez, plangintza egiten den tokian ordezkariak izatea, eta talde politikoak ez ote dira ordezkari? ala ez da horiekin dena agortzen? Hor beste eztabaida sakonago batetara sartzen gara. Aholku Batzordearen esperientzia ere nahiko ona da, eta nik uste mereziko lukeela bide horretatik jarraitzeak, baina ez zait irudi-

tzen euskararen arazoa bakarrik izango litzatekeenik, gizarte ereduaren azterketa dakar horrek.

Esango nuke bi gauza nahiko garbi geratu direla: bata, inkomunikazioa badagoela, problema bat badagoela, alegia, eta gero beste aldetik, mezu bezala elkarrekin lan egiteko beharra dagoela, eta gogoia ere badagoela, orduan, irekitasun bat, problematan elkartze bat ikusten da. Beharbada oraindik bide luzeagoa egin beharko da.

**Galdera:**

Euskara indartzea eta berreskuratzea da gure helburua, horretarako inportantea da euskara toki guztietan erabiltzea. Esperientzia guztiak berdinak ez direla eta batekoak bestean ezin direla aplikatu jakinda, Belgikan egin den esperientzia nola ikusten duzue euskararen kasuan?

**Mikel Ugalde:** Tokian-tokiko tratamenduari ekin behar zaio, eta Euskal Herrian egoera ezberdinak dira: Urola, Markina, Arrasaten, erabileraren eragina ikusten da. Beste esparru garantzitsu bat eskolaren bidez haurrengana iristea izango da, gurasoek ere mezu positibo hori jaso dezaten, adibidez Araban; eta gero beste batzuk, Audio kasurako, oso motibazio handia dute.

Bestalde, lurraldetasunak niri beldurra ematen dit. Nafarroako esperientzia, hiru esparruena, ere hor dago, eta bere eskasean, nahiago dut oraingoari eutsi.

**Paulo Agirrebaltzategi:** Berriz ere *Txepetx* aipatuaz, honela dio bere liburuan: "... que el euskera alcance en su territorio lingüístico un desarrollo completo, para que al mismo tiempo pueda completarnos a nosotros como euskaldunes". Hemen lurraldearena aipatzen da, hain zuzen. Uste dut inportantea dela, herri honek lurralde liberatuak behar ditu erabat euskaldun eta konpaktazioaren ispilu izango direnak. Adibidez, Udal elebakarren fenomeno erabat inportantea da, batez ere, nahiko herri euskaldunak izan arren, administrazioan euskararik erabiltzen ez zelako. **J**